

(EUSKAL) KULTURAREN KARTA
zirriborroa

Kultur Aniztasunaren Adierazpenak Babestu eta Sustatzeko Konbentzioa antolatu zuen Unesco erakundeak 2001ean.

Hartan oinarriturik landu dugu zirriborro hau.

Kulturaren Karta batek berebiziko garrantzia dauka Kulturaren kontzeptua bera merkantilizatzen ari den uneon.

Printzipio hauek nahi genizkioke agertu gure publikoari:

1. Kulturak oinarritzko balioa dauka gizakiaren garapenen librean. Kulturak jasole-jasale kritikoak sortzen ditu.

2. Horretatik eratortzen da etenik gabeko debatean behar duela garatu kulturak, bere forma, bere edukia eta bere esangura aberastuz.

3. Kulturak sendotu egin behar du bere espazioa. Ereku guztietara iritsi behar du. Hedapen sare eraginkor baten premian da.

5. Kulturaren aurrekontuek emendatze puska gaitz bat eskatzen du.

6. Gure hizkuntza berezia da, ez daukagu zeltiartasuna edo latintartasuna bezalako senidetzarik. Bai ordea bestelako ahaidetasun bat: Europako Hizkuntza Murriztuen arteko

(Euskal) Kulturaren Karta. Zirriborroa

harreman estu batek on handia egingo lioke Kulturaren kontzeptuari eta Kulturgintzaren sendotzeari han eta hemen.

7. Europako Hizkuntza Murriztuen Kulturaren Karta osatu behar genuke elkar indartzeko eta elkarrekin jarduteko.

Proposamen eraikitzaileetan abiatu gara.

Hedapen sarea aipatu dugularik, ez gara pentsatzen ari koiuntura honetaz bakarrik: (Euskal) Kulturaren sortzaileon arteko batasunak eta (Europako) Hizkuntza Murriztuen Kulturaren Kartak ez du ezertarako balioko ongi errotua ez badago.

* * *

Kultur politikaren definizio bat

Borondatea izanik eta borondatea gauzatuz, printzipioak, helburuak eta baliabideak era koherentean erabiltzea kultur adierazpenak babesteko, garatzeko eta hedatzeko.

Kultur subiranotasunaren definizio bat

Euskaldunon bizitza kolektiboa indartzen, garatzen eta iraunarazten duen ardatza.

Egiteko batzuk

Euskal Herriak betidanik adierazi du ezinbestekoa zaiola bere balioa agerraraztea artearen era guztietan. Egun, hori lortzeko, ezinbestekoa zaigu geure Kultur helburuak eskutik edukitzea:

(Euskal) Kulturaren Karta. Zirriborroa

(Euskal) Kultura destelebistatuz.

(Euskal) Kultura desturistizatuz.

(Euskal) Kultura sormenean oinarrituz.

(Euskal) Kultura sortzaileoi bihurtuz.

(Euskal) Kultura Euskal Herriaren nortasun nagusitzat hartuz.

Ahotsa

(Euskal) Kulturaren Kartak kulturaren izenean hitz egin dezakeen ahots bat sortuko luke.